

Neurti aurren-aurrean...
/Zaiatzan al-gora bear ana euskera erreza egiten?
/Bear ana alegintzen al-naiz guziak entendituko
duten euskera egiten?

Gizona, zeruz egarminduta

Edozein arlori ekin eta urteiera ona, gizarteko esparrua sakondu ezker, ezta errez. Gaur, alai be, gizarite arazo ta jakintzan, lenago mila urtetan baino gizaldi erdian azkarrago ibillirik, aurrerakuntza ikaragarriak egin ditugu. Gaurko gizonak asmo sendoa, gora-nai bizia dau; ezin aserik agertzen yaku, nundizale amorratu.

IZAILLARIAK

Baiña kultura, gizarite arazo ta olakoak, oraingoz beintzat, albora lagarik, azken bolara ontan mundu osoa ain arrigarririo dardaratu dauan kako ta zentzasun bati ekin daiodan: izarlariak —astronautak— dakardaz gogora. Mundu osoa diño, baiña ez ainbeste gure literatura. Munduko izparringi, egunera-ko ta aldizkariak, lelaketa bizian, lengo asteetako izarlariak buruturiko egitsari txalogarria, zabal ta sakon aitatu ta adierazo arren, gure artean oso gitsi izan diran arein lana zabaldu dabena. «Arantzazus», «Herria» ta «Oletik zerbait: eztoz nik besterik irakurri. Ta merezi dau. Euskal kanta batek diño: Agur, agur, ilargira noa. Baiña ez gaitzan kantan bakarrik, atsedan arrian lez, nasai ta patxadan geratu.

Gaurkoz nik be, Aita Santu Paul VI garrenak, aurtengo maiatzaren 21'ko entzun-aldian eukitako autun gogorazoko dot bakar-bakarrik; guztiz egokia baita gaurko gizon egalaririk goiak zear dagiezan egazkada izugarriak adierazo ta txalotzeko. Egun orreitan iru ipar-ame-

rikarrek osotu ebena, izan be, etzan izillan eukitekoa.

«Munduaren begiak —diño—, edo obeto, pentsamentuak barriren barriri jarraika yoakeze, baiña oraingoz len baiño ardura ta interes bizilagoraz, ablada zorotan gure lurra-zen izarbela (satelite), ilargia, gure gauetako adiskide baketsua, arpegi-kera aldakor, otz eta zidar-itxurazkoduna urretik ikusi ta aztarrenak artzera zuzentzen diran izarlari artzera. Gaur miatu egiten da, miretal, gogoz-nartu, Jainkoa otolitu. Astronomiku biurtzen da zeru-ertza, ta ez geure zelata ta barrenda oarkorrez bakar-bakarrik, baita geure pentsaeraren zabaltasunez bea.

IZADIKO MISTERI ARTEAN

Azken urteotan, orraitioño, lelo bat zabaltzen yaku, abets zoliz esan dalkegu, geure eguneroko bizitza gelan. Kanpora dei dagisku, kanpora, zerurantz, kosmurrantz begiak jasoteko esanik. Eta gaur, orrelaxe, gauza arrigarria benetan, beera aña, edo gelago, gol-aldera zuzentzen doguz geure begiak; ara doaz baita gure pentsamentuak be; begiak eta pentsamentuak aurrean daukagun usgune zoragarri ortan murgiltzen yakuz, konturatu barik.

«Ez gagoz illuraturik —diño Aita Santuak—, atseginaizirik; toton egin da gagoz, arriturik». Buru gaineko lauki, kuadru zabal, ertz-bage ta misterioz betea, guk ustez ezelan be eskuratu eziña, begipean zabal-zabalik agertzen yaku. Ta beara

ikusl ta ikusiz, arritasun biziak ar-tu ta ez zerurako ez lurrerako gelditzen gara, berezko senetik urtenda lez.

Ikuspen-izpiak zeru-zabaldiko saketara garoaz, ta udako gau argietan zeru-izpia jazten dauen izarpillo ederrak ikusiaz, pentsatu oi dogu, edo pentsatu nai izan dogu beintzat, izadiko ezkutapen aundia barrendu nairik. Eta, bear bada, misterioz beteriko ikuskizun onek gora-dei bat sortu dauku biotzean.

GIZONA, JAINKOAREN IDURI

Miretsi. Ta mireste onen indarra alperrekoa izan ez dadin, gizona-gana ta Jainkoagana zuzendu bear ditugu geure begiak. Gizona da, izan be, gure mirestearen len-zidorra. Nor dogu beara, onako lanak asmau ta egi biurtzeko? Txatxar ez al da? Nundik atera dau ainbeste adore munduko gauzak ezagutu, sakendu ta teknikaz menderatu al izateko?

Ta, argal mugatua izanik, zelan aurkitzen ete dau kemena olako asmo izugarriak aurrera erroteko? Ilargiaren arpegia ez-ezik, gizonarena dizdiratzen yaku aurrean. Zer izaki edo abere, naitz ta indar:ez aundiago izan, bardindu geinke gizonagaz? Ezta antzekorik. Bai, gizonagan ba-da zerbait gizona gain-tzen dauana; ba-dau zerbait misterioz beterikoa, Jainkozko zerbait dana.

JATUNARI BEGIRA

Miretsi. Ta mireste bigarren zidorra, Jaungoikoa bera dogu. Adimendun gara, ta azaletik bakarrik ez, gauzak euren izatean begiratzen ba'ditugu, otop-otop ikusiko dogu begien aurreko egi bat; gauza orreik ez dira berenez egiñak. Eta orduan, zelan ete dira? Zergaitik dira ain eratsuak, ederrak, batuak? Errazoitasun egoki batek beartzen gaitu erlejiñoa deritxogun jakituri goiko arenatarira eltzen. Izadiko erakuspen batek, gaur, jakiturizko irabazi izugarri onen orduan, barririo be guztia Iturrira garoaz, bearrezko yakun Bategana, sortzaille dan sorburu Jainko biziagana.

Gizona, kaxkar izanik be, arroa da. Yuri Gagarin'ek, goiak zear ibilli zanean, esan eban: «Eztoz Jainkoaren aztarrenik idoro». Igazko Gabon inguruan, oster, iru ipar-amerikar, ots, Lovell, Borman eta Anders, ilargitik eun kilometrura lez ibilli ziran egazka, ta antxe goian, Asiera deritxon liburu santurik zati batzuk irakurri ondoren, Dabid'en salmu au kantatu eben: Zeruak dau iragarten Jainkoaren

[aintza, izartegiak barriz Aren eskuak [egindakoa; egunak egunari bialtzen dautso [mandatua, eta gauak, gauari emoten dautso [albista.

CARLOS SANTAMARIAK

A. ONAINDIA

R I O N B A T

iaz. Bat bakarrik emango dut, une hontan begien aurrean daukadana. Malaren gainean gure bi aste-kari «Herria» eta «Z. ARGIA» dauzkat. Astero irakurtzen ditugu euskaltzale guziok, lehengoa noizean behin bidean gelditzen bada ere. Bata Baionan agertzen da, bestea Donostian. Berrogel ta bost kilometro dira besterik ez hiri batetik bestera. Baina, hizkuntzaren aldetik, zenbat kilometro dira aste-kari hauen bitartean? Portugesera eta espaineraren bitartean baino handiagoa iruditzen zait. Eta gero Euskal-Unibersitateaz mintzatuko zaigu!

Galdera bat egiten du Gereño adiskideak, guziok gure burueri egiten diegun bera: «Euskal Akademiak euskera batuaren oinarriak zabaltzera doa... NOIZ?» (letra handi hoiak nik jarritakoak dira).

Hontaz berri on bat eman ahal dirui. Gereño adiskidea: lehengo Euskaltzaindiaren hiztegi bateratua bukatuta dago. Hortarako eratu zan batzordeak bere lana amaitu du, eta laster agertuko da, diru-

dienez, Akademiaren «Euskera» aldizkarian. (Hori uste dugu behintzat).

Bi mila berba nagusiak ekartzen ditu. Herri osoan hedatuenetakoak. —ez bakarrik Gipuzkoan— danak bateratuak, nahiz formaren aldetik, nahiz ortografiaren aldetik, eredu ta kriterio ojetibo baten arauaz.

Zer arrera izanen du, hiztegi honek? Berriz ere, denbora galdu besterik ez ahal da izango? Ez dut uste. Jende letraduna leporaino dago hainbeste zalantzaren aurrean. Gazteak batez ere, benaz hartuko dutela uste dut.

Eta nere Gallup partikularak dienez gazteak ez ezik, idazle «zahar» asko ere bai (68'35% alajaina!) hiztegi hau erabiltzen salatu diko borondate onenakin.

NOIZ hori atarian daukagu beraz. Bihotz on! Gereño adiskidea ta adiskide guzi hoiak! Kulturazko euskera biziko da eta herriko euskera ez da galduko. Ez gera betiko anarkian akitzen jarraituko.